

**Euskal presoak** Espainiako Barne Ministerioak eginiko 105 espetxe aldaketen ondorioak

zeuden Jaengo espetxean (Andaluzia) diren preso guztiak; bakartze moduloan, alegia. Baina joan den astean preso bati gradua aldatu eta besteengandik banatu dute, besteekin inolako harremanik izan gabe. Egoera salatze-ko, itxialdia hasi dute.

Beste zenbait espetxetan, eraman dituzten preso guztien artean bat bakartu dute. Hori da Juan Carlos Ioldi (El Dueso), Fernando Alonso (Mansilla-Leon) eta Iñaki Rike (Daroca) presoek kasua. Alonso presoaren sarrera bideratzeko moduloan dago —bizitzeko ez den moduloa— eta preso sozialak ere ez ditu ikusten. Rikeri, berriz, patio ordutegia goizetik arratsalde- ra pasa diote, eta arratsalde- tik ziegatik ateratzea galaraz- ten duen zigorra duenez, ezin da patiora atera ere egin. Beraz, bakartze egoera bai- no okerrago da, bakartutako- ek gutxienez patio ordu batzuk badituzte eta. Patio ordutegia aldatzen ez badio- te, Rike denbora luzean egon daiteke horrela.

#### Osasun arazoak

Barne Ministerioak mugitu- tako azken presoek artean hainbat gaixorik zeuden. Haietatik bakarria baino ez du ekarri Euskal Herrira, eta besteen egoera nahiko kezka- garria da. Arlo honetan, Raul Alonsoren kasua aipatu behar da. Alonso Puerto I espetxetik Cuencara eraman dute. Alonsok ebakuntza behar du, baina Cuencako espetxean presoak ez dituzte ospitalera eramaten, eta, beraz, badirodi zailtasun handiak izango dituela.

Mari Kruz Cadarso Kordo- batik Brievara eraman dute, eta modu horretan hepatitis C-aren kontra hastear zegoen tratamendua bertan behera geratu da. Orain, Brievar berriro ere eskaera guztiak egin beharko ditu, hutsetik hasita.

Brievara eraman dituzten bi emakume presoak bikote- kideengandik banatu dituzte espetxe aldaketaren bidez, eta, ondorioz, ez dute mutil- laguna ikusteko inolako au- kerarik. Valladolid eta Logro- ñora eraman dituzten beste bi presoek kasuan ere gauza bera gertatu da. Hala, preso horiek berriro hasi behar izan dituzte tramite guztiak espe- txe berean jar ditzaten.

#### Bestelako arazoak

Valladolidera eraman dituz- ten presoak patioa garbitze- ri uko egiteagatik zigorrak

ETA-K su-etena aldarrikatu zuenetik, Espainiako Barne Ministerioak presoek gaia erabili izan du inmovilismo salaketei aurre egiteko. Hala, batez ere bi mugimen- du azaldu ditu horren eredu gisa: bata, 1998ko aben- duaren 18an iragarritakoa —Kanariar eta Balear uharteetan eta Ceuta eta Melillan zeuden presoak Andaluzia eta Valentziara erama- nez—, eta bestea, aur- tongo irailaren 7an ira- garritakoa —105 preso espetxez aldatzea—.

Horrelakoak eginez, Espainiako Gobernuak espetxe politika «erabat aldatu» duela azaldu nahi izan du, eta, hala, duela gutxi Ricardo Marti Fluxa Segurtasun- nerako Estatu idazka- riak Gobernuak «espe- txe politikan 180 gra- duko bira» eman zuela esan zuen. Gauza bera azaldu nahi izan zion Barne Minis- terioak Begoña Lasagaba- ster EAKo Madrilgo diputa- tuari, hark espetxe politika- ri buruz egindako galdera bati erantzunez. Baina Bar- ne Ministerioak berak igor- ritako txostenak argi azal- tzen du Ministerioaren baieztapenak eta datu erre- lak ez datozela bat. Barne Ministerioak igorritako bi orriko txostena aurretik aipatutako bi mugimen- duen eta gaixo zeuden zortzi bat presoek espetxe alda- keten aipamenarekin has- ten da. Ondoren, berriz, 1998ko iraileko datuak eta aurtengoak alderatzen ditu.

Lehenik, urte honetan preso kopurua jaitsi dela azaltzen du, Gobernuaren lorpena balitz bezala. Bai- na, arrazoiak ikusita, Gobernuarekin zerikusi gutxi duela ikus daiteke. Izan ere, 180 preso aske geratu dira azken urtean —50 espetxeratu dituzte—, eta haietatik 78 behin-behi- nean geratu dira aske, gehienak bermea ordaindu- ta; beste 51, zigorra osorik

jasotzen ari dira. Hala, badira bi preso astean lau egunez itxialdian egotera behartzen dituztenak; gainera, parteak ez dizkiete ezartzen eta, beraz, ezin dute erabakiaren kontrako errekurtsorik aur- keztu, babesgabatasuna era- ginez. Gainera, bakarturik

Barne Ministerioak azkenaldian euskal presoak erabili ditu inmovilismo irudia gainditzeko. Gaiari buruz propaganda ugari egin arren, Madrilgo Kongresuko diputatuei ere ez dizkie ematen egiazko datuak



SANDRA RUIZ / EFE

## Presoen kokapena

### ► Barne Ministerioaren datuak

|    | Hego Euskal Herria | EAEko Legebiltzararen planean 100 espetxez | Madrildik gora | Madrildik behera |
|----|--------------------|--------------------------------------------|----------------|------------------|
| 98 | %17                | %0                                         | %34            | %66              |
| 99 | %23                | %13                                        | %47            | %59              |

### ► EGUNKARIAREN datuak

|    | Hego Euskal Herria | EAEko Legebiltzararen planean 100 espetxez | Madrildik gora | Madrildik behera |
|----|--------------------|--------------------------------------------|----------------|------------------|
|    | Partenitza         | Partenitza                                 | Partenitza     | Partenitza       |
| 98 | %14,5              | 75                                         | %23            | 170              |
| 99 | %15,2              | 90                                         | %41            | 158              |
|    |                    |                                            | %57            | 345              |
|    |                    |                                            | %50            | 228              |

A. Iztuza / A. Paredes

bete zutelako; 22, zigorra bertan behera geratu zela- ko; zazpi, gaixorik zeudela- ko; beste zazpi, behin-behi- neko espetxeratze epea gainditu zutelako epaiketa- rik gabe; sei, baldintzapeko askatasunean; lau, absolbi- tu zituztelako; bi, zigorraren erdia bete zutelako eta oraindik errekurtsioa kale- ratu ez zelako; eta beste bi, kasua artxibatu egin zela- ko. Preso kopuruan Barne Ministerioak eta Amnistia- ren Aldeko Batzordeek

emandako datuak bat datoz, baina arrazoietan gorabehera batzuk badira, Barne Ministerioak ez baitu aipatzen ez absoluzioak, ez preso gaixoak eta abar.

Baina, zalantzarik gabe, datuen erabilera maltzurra hobekiena azaltzen duena presoek kokapenaren gaia da. Ministerioak, kokapena azaltzerakoan, ez du kopu- ru bat bera ere ematen, soi- lik portzentaiak ematen ditu. Hori oso nahasgarria izan daiteke; izan ere, preso

kopurua 515etik 386ra igo- rro da, eta portzentaia igo- tzeak ez du esan nahi preso gehiago hurbil daudenik (Barne Ministerioak preso kopurua 535etik 405era igo- ro dela dio; izan ere, Pre- so Politikoen Kolektibotik kanpo dauden presoak sar- tzen ditu, baina

EGUNKARIAK ez ditu lortu haien datuak eta, beraz, aldea oso txikia denez, besteak hartu dira erreferentzia gisa). Barne Ministerioak dio Hego Euskal Herrian duela urte- bete %17 zeudela eta egun %23. Bes- te datuek, ordea, azaltzen dute iaz 75 preso (%14,5) zeudela eta orain 59 (%15). EAEko Lege- biltzararen plane- an ageri ziren 300

kilometroko bueltako 10 espe- txeetan lehen %9 zeudela dio Ministerioak eta egun %13. Datu horiek besteekin bat datoz, lehen 49 preso baitzeuden espetxe horietan eta egun, berriz, 50.

Hala ere, daturik harriga- rriena Barne Ministerioaren txostenaren azken atalean ageri da. Presoen banaketa «Madrildik gora eta Madril- dik behera» egiten du. Nos- ki, ez du zehazten non dago- en muga, eta ateratzen duen ondorioa zera da: lehen Madrilgo gora preso- en %34 zeuden eta egun %66 daude. Presoen koka- penak ikusita, ordea, datu horiek ez dira ulergarriak, Barne Ministerioak gauza zelebre bat egin ez badu, behintzat: 1998ko kontue- tan Madrilgo espetxeak Madril- dik beherakotzat hartzea, eta 1999an, berriz, Madril- dik gorakotzat. Datuak honako hauek dira: 1998an, presoek %33 zeuden Madril- dik gora, %39,3 behera, eta %27,7 Madri- len. Egun, berriz, %41 dau- de Madril- dik gora, %38 Madril- dik behera eta %21 Madri- len.

behar izaten duen egunetan, hain zuzen.

Burgosen, berriz, ziegan preso sozialekin egotera behartzen dituzte, eta preso heldu berriak ez daude horretarako prest, intimitate- rik izatea galarazteaz gain, bestelako arazoak ere sortzen

dituelako. Hori salatze- ko, han dauden presoek protes- taldia hasi dute, ziegetan bakarrik edo beste euskal preso batekin egotea lortu arte.

Aitziber Iartza  
DONOSTIA